AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1001

AGINDUA, 2012ko otsailaren 16koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, maiatzaren 31ko JUS/1654/2010 Aginduaren bidez deitutako hautaprobak gainditu dituzten Justizia Administrazioko Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioei (txanda irekia) lanpostuak esleitzen zaizkie.

1451/2005 Errege Dekretuaren 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz –abenduaren 7koa, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioak lanera sartzeko, lanpostuak hornitzeko eta lanpostuz igotzeko arautegia onartzen duena–, ebazten dut 2012ko otsailaren 16ko Aginduaren bidez Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko karrerako funtzionario izendatutako Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioei (txanda irekia) I. eranskinean zerrendatzen diren organo judizial eta fiskaletan lanpostuak esleitzea, hauek kontuan hartuta:

Lehenengoa.– Agindu honen bidez lanpostua esleitzen zaien Justizia Administrazioko Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioek hogei egun natural izango dituzte karguaren jabe egiteko, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, edo, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean aldi berean argitaratu ezean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera, aipatutako errege-dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariaren edo horrek eskuordetzen duen funtzionarioaren aurrean jabetuko dira lanpostuaz, Gipuzkoa eta Bizkaiko EATan edo Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzan –Eusko Jaurlaritzaren egoitza, Gasteiz–, esleitutako lanpostuari dagokion lurraldearen arabera.

Bigarrena.– Agindu honen bidez lanpostua esleitu arren, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko edo Laguntza Judizialeko Kidegoko funtzionarioek kidego horietako batean jardunean jarraitzea erabakitzen badute, ez dute esleitutako lanpostuaz jabetzera joan beharko. Aski izango dute, lehenengo atalean aipatutako jabetze-epean, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari erabaki hori jakinaraztea, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 506.d) artikuluan xedatutako borondatezko eszedentzia deklaratu ahal izateko. Borondatezko eszedentzia deklaratzen duen ebazpenaren kopia Justizia Administrazioaren Giza Baliabideen Zuzendariordetza Orokorreko Langileen Erregistro Nagusira bidali beharko da.

Hirugarrena.– Funtzionarioek Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoan sartzea erabaki eta Justizia Administrazioan betetako zerbitzuan etenak saihestu nahi badituzte –lanpostuaz jabetzeko behar besteko denbora behar baitute–, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari egun bateko baimen ordaindua eska diezaiokete, herriz aldatzen ez badira, eta, betiere, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioaren lanpostua Euskal Autonomia Erkidegoan badute; edo bi egunekoa, aurkako kasuan. Kanariar eta Balear uharteetatik, Ceutatik edo Melillatik etorri behar dutenek, berriz, hiru eguneko baimena izango dute kargu berriaz jabetu arte.

Funtzionarioak beste Lurralde Kudeatzailetza batetik edo giza baliabideen gaineko eskumena duen beste autonomia erkidego batetik badatoz, agiri horiek organo horietara helarazi beharko

dira, Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoan lanpostuaz jabetzen diren egun berean Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoan edo Laguntza Judizialeko Kidegoan borondatezko eszedentzia eta lanpostuaz jabetzeko bezperan Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoan kargugabetze automatikoa ofizioz emateko, ordainsarien ordainketan etenaldirik ez gertatzeko.

Laugarrena.– Lanpostuaz jabetzeko aktaren kopia, bai eta egin den aukera ere, Justizia Administrazioaren Giza Baliabideen Zuzendariordetza Orokorreko Langileen Erregistro Nagusira bidali behar du Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak.

Bosgarrena.– Onartutako hautagaiei esleitutako lanpostuetan dauden bitarteko funtzionarioek titularra lanpostuaz jabetzen den egunean utziko dute lanpostua.

Seigarrena.– Karrerako funtzionario diren hautagaiek lanpostuaz jabetzeko aktan aukeratu egin beharko dute, hala agintzen baita xedapen hauetan: 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunari buruzkoa, eta Justizia Administrazioko langileari aplikatzekoa dena; Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 498. artikulua –abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak aldatua–.

Zazpigarrena.– Agindu honen bidez lanpostua esleitzen zaien Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko Kidegoko funtzionarioek, kalifikazio-hurrenkera dela-eta lanpostua derrigorrean esleitzen bazaie ere, ezin izango dute lekualdatze-lehiaketetan parte hartu agindu honen egunetik bi urte igaro arte. Bi urte horiek zenbatzeko, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 529.3 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraituko zaio.

Zortzigarrena.– 2012ko urtarrilaren 17ko Aginduaren bidez (2012-01-30eko BOE eta EHAA) hautagaiei eskaini zaizkien eta agindu honetan esleitu ez diren lanpostuek hutsik jarraituko dute.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, hala baitiote Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9. artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 16a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

Kidegoa: Prozesu eta Administrazio Kudeaketa (Txanda irekia).

Hurrenkera zk	IFZ	Abizenak	Izena	Esleitutako destinoa	Udalerria	Probintzia
1	44672121	Ruiz del Portal Santana	Maria	Lehen Auzialdiko 3 zk.ko Epaitegia (Erregistro Zibila)	Vitoria-Gasteiz	Araba
2	30629847	Orueta Anchia	Inmaculada	Merkataritzako 2 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia
3	20175275	Galán García	M.ª Begoña	Merkataritzako 2 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia
4	72577330	Dominguez Rodríguez	Rosa	Instrukzioko 5 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa
5	52614819	Arcay Menéndez	Ignacio	Emakumearen Gaineko Indarkeria Arloko 1 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia
6	72311876	Corral López	Iratxe	Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegia	Barakaldo	Bizkaia
7	46136947	De Ros Viader	Marta	Lehen Auzialdiko 1 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa
8	35775474	Mirones Sola	Eva	Zigor Arloko: Izapideen eta Betearazpenen Bulego Orokorra	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa
9	45664253	González Navarro	Laura	Emakumearen Gaineko Indarkeria Arloko 1 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia
10	30617881	Salazar García	Susana	Zigor Arloko 1 zk.ko Epaitegia	Barakaldo	Bizkaia
11	34105973	Carrillo Pacheco	María Concepción	Lehen Auzialdiko 3 zk.ko Epaitegia (Familia)	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa
12	73219774	Insausti Usabiaga	María José	Lehen Auzialdiko 6 Zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa
13	30589640	Gómez de Segura Piérola	Amaia	Emakumearen Gaineko Indarkeria Arloko 1zk.ko Epaitegia	Vitoria-Gasteiz	Araba
14	15390201	Vicente De Dios	María Consuelo	Instrukzioko 1 zk.Ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa
15	34081198	Irigoyen Arruabarrena	José María	Zigor Arloko: Izapideen Eta Betearazpenen Bulego Orokorra	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa
16	16566305	Baquero Fernández	María Felisa	Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegia	Vitoria-Gasteiz	Araba
17	34109129	Giménez Echarri	Elisabete	Lehen Auzialdiko 4 zk.ko Epaitegia (Erregistro Zibila)	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa
18	13796233	Bello Martín	Cecilia	Emakumearen Gaineko Indarkeria Arloko 1 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa